

JUSTO MARTIREA

IPUIÑA

Justok, ill eta zuzen Zeruko atera
 Igo eban bertatik oles egitera,
 Eta leyo chikira urtenik San Pedrok
 Itandu eutsan laster:—¿zer eskatuten dok?
 —¿Zer eskatuten dodan? barrura sartzea,
 Arren zabaldu begit mesedez atea.
 —Au zabaldu terako bear aut ikusi,
 Zerurik ete doan beian irabazi,
 ¿Ezkondua izan az, ala mutill zarra?
 —Ezkondua ta euki dot andrea charra,
 —¿Zetarikoa izan dok bada andrea?
 —Alper, zital ta ordi parerik bagea.
 —¿Urte askotan egiñ az beragaz bizi?
 —Berrogei bat beñik beñ egiñ doguz nasi.
 —¡Ola! berrogei urte aiñ andra charragaz
 Ez dok gichi eroan bizitzan beragaz,
 Ator ordu onean, ator gisajoa,
 Edozeiñ andra badok Purgatorioa,
 Bajakiat irea zala Inpernua,
 Ta ondo irabazi doala Zerua;
 Duda bagarik i az Justo Martirea,
 Aspaldian bajoat ire entzuerea;
 Eutso koroï au eta palma bat andia,
 Ara an goyan daukak jarteko aulkia,
 Berrogei urte egiñ arren beian gaizki,
 Zeruan biziko az oraiñ ondo beti.
 Koroïaz eta palmaz anchen dago Justo,
 Andrez eroana milloe bat susto.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.
